


Denbora-



2 Lanbideak

Hona hemen lanbide batzuen izenak, eta lan tresna batzuk. Lanbide bakoitza dagokion lan tresnarekin lotzea da zure lana. **Asmatzen al duzu nori zer dagokion?**



3 Bikiak

Eiderrek natur parke batera txangoa egin du gurasoekin. Ibilaldian topatu dituen zuhaitzei argazkiak ateratzen ibili da. **Ateratako argazkiak arretaz begiratu, eta bi zuhaitz berdin daudela ohartuko zara. Zein?**



$$3 + 4 \times 5 - 2 + 1 = \square$$

$$8 - 1 \times 2 + 3 - 1 : 8 = \square$$

$$4 - 2 + 7 \times 3 + 1 = \square$$

$$10 - 3 + 4 \times 2 + 5 = \square$$

4

Buruketak

Zer moduzkoa zara kalkuluak ateratzen? Egin eragiketa hauek emaitzei begiratu gabe. Ea erantzuneko kopuru bera lortzen duzun. **A, eta ez erabili kalkulagailua!**



-pasa

ERANTZUNAK: 1.-Aturri, Ega, Bidasoia, Ebro, Urumea, Ibaizabal eta Zadorra. 2.-Suhiltzailea eta ureztodi, nekazarria eta sega, arrantzalea eta kanabera eta kamioilaria eta bolantea. 3.-A eta F. 4.-34, 2, 28 eta 27. 5.-1-F, 2-D, 3-B, 4-H, 5-C, 6-E, 7-I, 8-A eta 9-G.

5 Puzzlea

Zezenak zezen-plazatik ihes egin ostean, harri eta zur geratu da toreatzailea. Horixe ikus daiteke argazkilariak atera dion argazkian.

Argazkia osatzeko, zati batzuk falta dira, ordea.




eskulana

Globo aerostatikoa


Inoiz bidaiatu al duzu globoan? Eskulan honekin zuk egindako globoarekin jolastu ahal izango zara. Jarraitu pausoak!

Egiteko modua

1. Globoaren estalkia egiteko, puxika bat puztu; ez dadila oso handia izan. Korapiloa egin ostean, eskuz moztutako eta koletan sartutako kolorezko paper zatiekin estali puxika. Beheko aldean zati bat libre utzi.



2. Jarritako paperak ongi lehortu direnean, puxika zulatu. Goiko aldean zulo txiki bat egin eskuziri baten laguntzaz. Soka zati bat egin estalki barrutik.



4. Lehortzean, harri-kartoiak edalontzitik atera. Margotu pintzelekin saskia laranja kolorez, eta apaintzeko, egin marra gorri batzuk.



Beharrezko materiala

- Puxika.
- Edalontzia.
- Kolorezko papera: morea, lila eta berdea.
- Harri-kartoiak.
- Kola.
- Pintura laranja eta gorria.
- Pintzelak.
- Soka gorria.
- Eskuziria.
- Zinta eranskorra.
- Guraizeak.

3. Kolatutako harri-kartoi zatiekin estali edalontzia barruko aldetik. Modu horretan, globoaren saskia egingo dugu.



5. 20 zentimetroko lau soka zati moztu. Soka zati horiek globoaren estalkia eta saskia lotzeko erabiliko ditugu. Soka eusteko zinta eranskorra erabili. Behin globoa amaituta, hormatik zintzilik jar dezakezu.

